

## IMPULSA-REN HIRUGARREN EDIZIOAREN OINARRIAK

### ZER DA IMPULSA?

IMPULSA programa proiektu berritzaileak gauzaten laguntzeko tresna izateko jaio zen, betiere gizarteari zuzendutako proiektuak. Tresna hori, Podemos-Ahal Duguko kargu publikoen soldata-soberakinarekin finantzatzen da. Kargu publiko horien (hau da, politika egitea gizartearentzat zerbitzua ematea dela uste duten jendearen) soldataren mugak lanbide arteko gutxieneko soldata hirukoizten du.

IMPULSAren hirugarren edizioak, irabazi-asmorik gabeko elkarteek bultzatuta gizarteari zuzendutako ekimenak jasotzeko prest egoteaz gain, kategoria berri bat dakar: Hacemos programa. Kategoria horretan, Podemos-Ahal Duguko Zirkuluek eta Udalerriko Herritar Kontseiluek beren auzo edo herrietan lantzeko proiektuak aurkezteko aukera izango dute, horren helburua da herritarren beharrei erreparatu, horiei erantzun, eta hainbat talderekin eta antolatutako herritarrekin saretzea.

### EKARPEN EKONOMIKO OROKORRA

Hirugarren edizio honetarako 500.000 euroko aurrekontua egongo da, eta modu honetan banatuko da:

- *Hacemos* programa: 200.000 euro.
- IMPULSA zure herrialdea: 120.000 euro.
- Podemos-Ahal Dugu IMPULSA: 150.000 euro.

*Hacemos* programarentzat autonomia-erkidegoka emandako diru-laguntzak eta Podemos-Ahal Dugu IMPULSA kategoriaren oinarriak dokumentu honen amaierako eranskinean kontsulta daitezke.

Aurrekontu osoa banatuko ez balitz, soberakina IMPULSAren hurrengo edizioetarako gordeko litzateke.

Bestalde, gainerako 30.000 euroak (aurrekontuaren %6) IMPULSA programaren kudeaketa-gastuak ordaintzeko erabiliko dira.

# ZURE AUZO/HERRIKO HACEMOS PROGRAMA

## I) Helburuak

*Hacemos* programaren helburua Podemos-Ahal Duguko Zirkuluek landutako eta Udalerriko Herritar Kontseiluek bultzatutako proiektuak sustatzea da, proiektu horien helburua gertuko ingurunea (auzoa, barrutia edo herria) eraldatzea da eta kultura politikoa piztea izango da.

Era berean, ekimenerako giroa sortzea eta mobilizatzea lortu nahi da, gertuko esparruan; azotarrak batu, ukitzen dituzten arazoak hauteman eta horiek modu bateratuan konpontzeko.

## II) Lehentasunezko ildoak

Aurkeztuko diren proiektuak deialdiaren helburuak bete beharko dituzte. Gainera, gehienez honako gai hauek hiru hurrekin izan beharko dute lotura:

- Artea eta kultura
- Hezkuntza
- Genero-berdintasuna
- Laguntza juridikoa
- Gizarteratzea
- Osasuna eta kirola
- Ingurumena
- Gizarte ekonomia
- I+G+b eta teknologia berriak.

## III) Ekarpen ekonomikoa

Esan bezala, 200.000 euro izango dira *Hacemos* programarentzako, eta diru hori 3.000 euroko 66 diru-laguntzatan banatuko da<sup>1</sup>. Diruaren banaketa, autonomia-erkidegoko, irizpide hauen arabera egingo da (ikusi eranskina):

- Autonomia-erkidegoko biztanle kopurua (2015eko azken erroldaren arabera).
- Elkarrekin Podemosek jasotako boto kopurua autonomia-erkidegoko 2016ko ekainaren 26ko hauteskundeetan. Podemos-Ahal Dugu beste alderdi politiko batzuekin batera aurkeztu zen erkidegoetan, boto kopuru osoa hartuko da kontuan.

Azkenik, ez badaude ebaluazioan %60 baino nota altuagoarekin jasotako diru-laguntza kopurua adina proiektu autonomia-erkidegoko, autonomia-erkidego horretako soberakina IMPULSAren hurrengo edizioetarako gordeko da.

---

1. 200.000 euroren guztizko kopurutik gelditzen diren 2.000 euroak (3.000 eurorainoko diru-laguntza), IMPULSAren hurrengo edizioetarako gordeko dira —gainerako soberakinekin batera—.

## IV) Baldintzak

Kategoria honetan parte hartzeko aukera izango dute:

1. Irabazi-asmorik gabeko elkarteek. Horiek aurkeztutako proiektuak Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo elkartearen egoitza sozialeko Zirkulu aktiboen bermea izan behar du, eta egoitza duen herrian Udalerriko Herritar Kontseilurik edo Zirkulurik ez bada, ondoko herriren bateko Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo Zirkuluen bermea onartuko da. Berme hori «IMPULSA ziurtagiria» jasota egiaztatuko da, hor agertuko da proiektuarekiko babes esplizitua, baita proiektuan parte hartuko duten Udalerriko Herritar Kontseiluko edo Zirkuluko norbanako kideen konpromisoa ere, halakorik balitz.
2. Taldeek edo plataformek. Horiek aurkeztutako proiektuak Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo elkartearen egoitza sozialeko Zirkulu aktiboen bermea izan behar du. Berme hori «IMPULSA ziurtagiria» jasota egiaztatuko da, hor agertuko da proiektuarekiko babes esplizitua, baita proiektuan parte hartuko duten Udalerriko Herritar Kontseiluko edo Zirkuluko norbanako kideen konpromisoa ere, halakorik balitz.
3. Zirkulu aktiboetako kideek. Horiek aurkeztutako proiektuak norbanako baten izenean edo talde baten izenean aurkez daitezke, baina ez Zirkuluaren izenean. Proiektua hautatua izaten bada, onarpena jasotzen duten pertsona horiek talde independente bat osatu beharko dute, Zirkulutik eta Podemos-Ahal Dugutik kanpo.
4. Udalerriko Herritar Kontseiluko kideek. Horiek aurkeztutako proiektuak norbanako baten izenean edo talde baten izenean aurkez daitezke, baina ez Udalerriko Herritar Kontseiluaren izenean, eta proiektu horrek kide diren Udalerriko Herritar Kontseiluaren bermea izan beharko du. Proiektua hautatua izaten bada, onarpena jasotzen duten pertsona horiek talde independente bat osatu beharko dute, Udalerriko Herritar Kontseilutik eta Podemos-Ahal Dugutik kanpo. Hau da, Udalerriko Herritar Kontseiluko kideek ezingo dute kargurik izan koordinazio-organoetan edo elkartearen zuzendaritza-batzordean.
5. Elkarte moduan osatuta dauden “Moretxeek”, proiektua gauzatzeko den inguruko Zirkuluen batean modu aktiboan parte hartzen dutenak.

Aurreko kasuetan, legezko arrazoiengatik, pertsona onuradunak ez badaude pertsona juridiko moduan osatuta, elkarte bat osatu beharko dute; horretarako, dagokien eskaera aurkeztu beharko dute Administrazioan, deialdiaren behin betiko emaitzak argitaratu eta hamar egun naturaleko epearen barruan.

**Elkarte hori alderditik erabat bereizita egon beharko da, baita etorkizunean alderditik osatzen diren elkarteetatik ere.**

Diru-laguntza ematea elkartearen sorrerak baldintzatzen du, hau da, elkarteak izena emanda egon behar du dagokion erregistroan eta Podemos-Ahal Duguk eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu behar du elkartearen osaera eta baldintza legal guztiak (bere baliozkotasun eta funtzionamendurako) betetzen direla justifikatzeko.

Onuradunek honako aipamen hauek jarri beharko dituzte beren komunikazioetan, dokumentuetan, iragarki eta proiektuarekin zerikusia duten web-orrietan, eta proiektuaren izenaren ondoan (leku nabarmenean): «*Hacemos* + auzoa/herria», «Podemos-Ahal Dugu IMPULSA» logotipoa eta «Podemos-Ahal Duguk finantzatzutako proiektua».

Ezin izango dira aurkeztu IMPULSAren bigarren edizioan (edozein kategoriatan) diru-laguntza jaso zuten elkarte edo taldeak, ezta lehenengo edizioan Estatuko kategorian diru-laguntza jaso zutenak ere.

## V) Eskaera aurkezteko baldintza formalak

1. Eskaeraren aurkezpena **soilik online egingo da**. Eskatzaileek <http://participa.podemos.info/impulsa> plataforman urriaren 24tik aurrera egongo den formularioa bete beharko dute eta honako agiri hauek gehitu beharko dituzte:

**1.1.** Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo Zirkulu aktibo baten bermea duen proiektua aurkezten duten irabazi-asmorik gabeko elkarteek:

- Identifikazio Fiskaleko Txartela (IFZ).
- Elkartearen legezko ordezkarien NAN edo AIZ (presidentea, presidenteordea eta diruzaina).
- Elkartearen inskripzioa dagokion erregistroan.
- Elkartearen estatutuen kopia, behar bezala erregistratuak (erregistroak zigilatatuak).
- «IMPULSA ziurtagiria», horren bidez erakutsiko da Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo Zirkulu aktiboaren bermea eta proiektuan eragingo den inguruneko Zirkulu aktiboko kideen parte-hartzea.
- Elkarteko presidentek betebeharrak fiskalak eta laboralak egunean dituela adierazten duen adierazpena zin eginda. Behin deialdiaren emaitzak argitaratuta, onuradunei eskatuko zaizkie Zerga Agentziako betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak laboralak eguneratuta dituela erakusten duten ziurtagiriak. Onuradunak zorrak balitu, diru-laguntza ezeztatuko litzaioke eta, dagokion autonomia-erkidegoan, ebaluazioko puntuazioaren arabera hurrengo proiektuari emango litzaioke diru-laguntza hori.
- Elkarreak urtebete baino gehiago badu, aurreko urteko jardueren memoria aurkeztu beharko da.

**1.2.** Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo Zirkulu aktibo baten bermea duen proiektua aurkezten duten talde edo plataformek:

- «IMPULSA ziurtagiria», horren bidez erakutsiko da Udalerriko Herritar Kontseiluaren edo Zirkulu aktiboaren bermea.
- Presidente, idazkari eta diruzainaren karguak izango dituzten hiru pertsonen zin egindako adierazpena, elkartearen osatzea hitzemango dute bertan.
- Proiektuaren arduradunen NAN edo AIZ; hau da, osatuko den elkartearen presidente, idazkari eta diruzainaren karguak izango dituztenena (legezko ordezkariak).

**1.3.** Zirkulu aktiboetako kideentzat:

- Autonomia Erakundeko Idazkariak edo, halakorik ezean, Estatuko Erakundeko Idazkariak igorritako dokumentua, Zirkulu aktiboa dela ziurtatzen duena.
- Presidente, idazkari eta diruzainaren karguak izango dituzten hiru pertsonen zin egindako adierazpena, elkartearen osatzea hitzemango dute bertan.
- *Hacemos* proiektuaren arduradunen NAN edo AIZ; hau da, osatuko den elkartearen presidente, idazkari eta diruzainaren karguak izango dituztenena (legezko ordezkariak).
- «IMPULSA ziurtagiria», horren bidez erakutsiko da beren Zirkulu aktiboaren bermea.

#### 1.4. Udalerriko Herritar Kontseiluko kideentzat:

- «IMPULSA ziurtagiria» beren Udalerriko Herritar Kontseiluak igorria, Udalerriko Herritar Kontseiluaren bermea jasotzen duena.
- Presidente, idazkari eta diruzainaren karguak izango dituzten hiru pertsonen zin egindako adierazpena, elkartea osatzea hitzemango dute bertan. Hiru pertsona horiek ezingo dira izan Udalerriko Herritar Kontseilari.
- *Hacemos* proiektuaren arduradunen NAN edo AIZ; hau da, osatuko den elkartearen presidente, idazkari eta diruzainaren karguak izango dituztenena (legezko ordezkariak).

#### 1.5. Elkarte moduan osatuta dauden “Moretxeentzat”:

- Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).
- Elkartearen legezko ordezkarien NAN edo AIZ (presidentea, presidenteordea eta diruzaina).
- Elkartearen inskripzioa dagokion erregistroan.
- Elkartearen estatutuen kopia, behar bezala erregistratuak (erregistroak zigilatuak).
- Estatutuetan ez bada agertzen eragin behar den eremuko Zirkuluarekin loturarik, elkarlanerako akordioa adierazten duen dokumentua erakutsi beharko da, elkarteko legezko ordezkariak eta Zirkuluko Erakundeko bitartekariak (edo horretaz arduratzen denak) sinatua.
- “Moretxe”arekin eta aurkeztutako proiektuarekin elkarlana bermatuko duen Zirkuluaren akta.
- Elkarteko presidenteak betebeharrak fiskalak eta laboralak egunean dituela adierazten duen adierazpena zin eginda. Behin deialdiaren emaitzak argitaratuta, onuradunei eskatuko zaizkie Zerga Agentziako betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak laboralak eguneratuta dituela erakusten duten ziurtagiriak. Onuradunak zorrak balitu, diru-laguntza ezeztatuko litzaioke eta, dagokion autonomia-erkidegoan, ebaluazioko puntuazioaren arabera hurrengo proiektuari emango litzaioke diru-laguntza hori.
- Elkarteak urtebete baino gehiago badu, aurreko urteko jardueren memoria aurkeztu beharko da.

#### 2. Legezko dokumentuez gain, inprimaki bat bete beharko da, baita aurretik ezarritako txantiloiredu batzuk ere, dokumentazio hau jasotzen dutenak:

- Proiektuaren inprimakia
- 1. eranskina: Lurraldearen mapatzea
- 2. eranskina: Proiektuaren laburpena
- 3. eranskina: Kronograma
- 4. eranskina: Jarduerak eta baliabideak
- 5. eranskina: Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.

#### 3. Proiektuak Estatuko lurraldeetako edozein hizkuntzatan aurkez daitezke gerora digitalean argitaratzeko eta, aldi berean, inprimakian jasotzen den informazioaren gaztelaniazko kopia bat bidali beharko da IMPULSAko Batzorde Ebaluatzailearen ebaluazio-prozesurako.

## VI) Aurkezteko epea

Proiektuak eta dokumentazioa aurkezteko epea 2016ko urriaren 24ko 10:00etan hasiko da (penintsulako ordua) eta 2016ko azaroaren 6ko 23:59etan amaituko da (penintsulako ordua).

## VII) Proiektuak balioesteko irizpideak

Automatikoki baliogabetzeko arrazoiak izango dira honako hauek: aurkeztutako proiektuak edo eskaria egiten duen elkarteak eskatutako baldintzak ez betetzea; giza eskubideak ez errespetatzea; edo Podemos-Ahal Duguren Kode Etikoa urratzea.

2016ko azaroaren 14an iragarriko dira baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuak eta, beraz, ebaluazio-fasera igaroko dira.

**Ebaluazio-fasean** zehar IMPULSAko Batzorde Ebaluatzaileak edizio honetako oinarrien eta honako irizpide hauen arabera balioetsiko du proiektu bakoitza (bi bloke handitan banatzen dira irizpideak):

- a) Zirkuluarekin, Udalerriko Herritar Kontseiluarekin edo eskaera egin duen elkartearekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 30 puntu).
- b) Aurkeztutako proiektuarekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 70 puntu).

**Eranskinean («Hacemos programaren ebaluazio-irizpideak»)** kontsulta daitezke bloke bakoitzeko irizpide zehatzak.

Balioesteko baldintza bat, bideragarritasun teknikoari dagokiona, lurraldearen mapatze bat egitea da, proiektuak konpondu asmo dituen beharrak eta arazoak identifikatzeko. Hori dela eta, **funtsezkoa da lurraldearen mapatzea eginda edukitzea**. Oraindik egin ez bada, metodologia horrekin lanean hastea aholkatzen da oinarri hauek argitaratu bezain laster eta proiektuaren izen-ematea egin artean. .

## VIII) Ordaingarriak diren gastuak

IMPULSAk proiektua gauzatzeko egiten diren ekimenen gastuak soilik ordainduko ditu.

Proiektu guztientzat:

- Ezingo dira aurkeztu langileak edo langile autonomoak kontratatzea **soilik** helburu duten proposamenak.
- Ezingo dira aurkeztu lokal baten alokairua edo erosketa finantzatzea **soilik** helburu duten proposamenak.
- Ezingo dira sartu elkartearen egoitzaren edo "Moretxea"ren mantenu gastuak (ura, telefonoa, argindarra, etab.).
- Ez da onartuko zerbitzuak azpikontratatzeara.

## IX) Proiektuak gauzatzeko epea

Derrigorrezkoa da jasotako diru-laguntza, gehienez ere, bederatzi hilabeteko epean inbertitzea aurkeztutako proiektuan<sup>2</sup>, eta hori, gehienez ere, lehen diru-laguntza jaso eta hilabetera hasiko da.

Ezingo dira gehitu deialdiaren emaitzak argitaratu aurretik egindako gastuak, ezta hitzarmena amaitu ondorengoak ere.

---

2. Kasu berezietan, eta proiektua gauzatzeko aldiaren luzatze-protokoloaren arabera, proiektuaren iraupena luzatzeko aukera egongo da.

## X) Proiektuak ebaluatzeko sistema eta epeak

IMPULSAko Batzorde Ebaluatzailea, Parte Hartze Saileko, Finantza Saileko, Erakundeko Idazkaritzako eta Gizarte Mugimenduen Idazkaritzako profesionalak eta Podemos-Ahal Duguko Estatuko Herritar Kontseiluko kideek osatua, arduratuko da baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuak ebaluatzeaz, IV. puntuari aipatutako eta eranskinean zehaztutako irizpideen arabera..

Ebaluazio hori amaitutakoan, proiektuen behin-behineko zerrenda egingo da eta bakoitzak lortutako puntuak agertuko dira bertan. Zerrenda hori IMPULSAren web-orrian argitaratuko da 2016ko abenduaren 12an.

Abenduaren 13tik 15era ebaluazioko emaitzak egiaztatzeko epea zabalduko da, horretarako eskatzaileek IMPULSAko Talde Teknikoarekin jarri beharko dute harremanetan [programahacemos@podemos.info](mailto:programahacemos@podemos.info) helbidearen bitartez.

Amaitzeko, abenduaren 19tik aurrera IMPULSAren web-orrian argitaratuko da behin betiko zerrenda, autonomia-erkidego bakoitzeko hautatutako proiektuak jasoko dituen.

Deialdiaren ebazpenari ezingo zaio apelaziorik jarri.

## XI) Emandako laguntzaren formalizazioa

1. 3.000 eurorainoko diru-laguntza emango da elkarteko eta proiektuko.
2. Laguntzen ebazpenaren berri emandakoan, Podemos-Ahal Dugu alderdi politikoak eta hautatutako proiektuak aurkeztu dituzten elkarteek elkarlanerako hitzarmen bat sinatuko dute agiri honetako oinarriak eta egungo legeria oinarri hartuta.
3. Dokumentu horretan zehaztuko dira bi aldeen betebeharrak eta eskubideak, eta atal hauek izango ditu:
  - 3.1. Proiektua hasteko eta amaitzeko epeak.
  - 3.2. Emandako laguntzaren zenbatekoa.
  - 3.3. Fakturen denbora-tartearen zehaztapena.
  - 3.4. Ordaintzeko modua.
  - 3.5. Proiektuaren jarraipena.
4. Proiektuek dagokien laguntzaren %50 jasoko dute bozketen emaitzak argitaratu eta elkarlanerako hitzarmena sinatu eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean. Gainerakoa bi epetan ordainduko da: lehenbizi, proiektuaren erdiko faseko txostena IMPULSAko Talde Teknikoak jaso eta ebaluatutakoan eta lehen ordainketarekin egindako gastuak justifikatutakoan, kopuru osoaren %40 ordainduko da; eta, gero, gainerako %10 gauzatutako proiektuaren amaierako memoria eta gastuen justifikazioa aurkeztutakoan ordainduko da.
5. Elkarte berri bat sortu den kasuetan, lehen ordainketa elkarsteak behin betiko IFZ lortu eta elkarteko legezko ordezkariak sinatutako elkarlanerako hitzarmena eta legezko dokumentazioa IMPULSAko Talde Teknikoari bidalitakoan egingo da. Behin betiko IFZ elkarstea osatu eta hiru hilabetera jasotzen da gutxi gorabehera.
6. IMPULSAko Talde Teknikoak eskatutako eta agiri honetako oinarrietan zehaztutako dokumentazioa bidali ezean, edo memorian aurkeztutako proiektua bete dela frogatu ezean, elkarsteak eta proiektuaren arduradunek jasotako diru-laguntza oso-osorik itzuli beharko dute.
7. Eskatzaileek IMPULSAko Talde Teknikoak onartutako proiektuen jarraipena egingo duela jakin eta onartuko dute, eta konpromisoa hartuko dute proiektuaren garapenari buruz Talde Teknikoak eskatutako informazioa emateko.

8. Herritar Kontseilu Autonomikoek eta Parte Hartzearen arduradun autonomikoek eragileen jarduera erraztuko dute; eta, Podemos-Ahal Duguko Parte Hartze Sailak bereziki eskatutako kasuetan, aldian behin ebaluatuko duen talde bat osatuko da kasu horien bilakaeraren berri gardentasunez emateko.



# IMPULSA ZURE HERRIALDEA

## I) Helburua

IMPULSA zure herrialdea kategoriak estatuan lau proiektu bultzatu nahi ditu, gizartearen garapenean lagundu eta gizarte justuagoa, berdintasun gehiagokoa eta demokratikoagoa lortzea helburu izango duten proiektuak. Proiektu hauen jarduera-eremua gertukoa izan daiteke, baina —proiektuaren izaera bera tarteko— Estatu osoan eragina (epe luzera edo ertainera) izango duen proiektua aurkezteko aholkatzen da. Kategoria honetan, proiektuak estatu mailan lehiatuko dira.

## II) Lehentasunezko ildoak

Aurkezten diren proiektuek deialdiaren helburuarekin bat egin beharko dute eta, gainera, gai hauetako **bat** izan beharko dute:

### 1. Artea eta kultura

Kulturarik gabeko gizartea arimarik gabeko gizartea da. Horri dagokionez, Gobernuaren okerreko jokabideak ez dio soilik industria horren publikoaren jaitzierari eragiten (%30 jaitsi da publikoa), elkarlanean egindako eta gizarteari zuzenduriko esperientziei ere eragiten die, bizitza duin baten garapen-, hezkuntza- eta integrazio-beharrak asetzerara bideratutako esperientziei, hain zuzen ere. Arte- eta kultura-espazio berriak sortzea garapenaren eta zoriontasunaren aldeko apustua egitea da; horregatik lehentasun bat da.

### 2. I+G+b eta teknologia berriak

Ikerketa zientifikoak herrialde baten ekonomiaren garapenean laguntzen du, baina biztanleen bizi-itxaropena eta -kalitatea ere zehazten du. Ideiek eta ikerketak herritarren babesa behar dute, ondoren horrek onurak ekarriko baititu hezkuntza-metodoetara, osasun-tekniketara eta enpresen garapenera. Sortu, ikertu eta berritzen dutenei laguntzeko dagoen borondateak zehaztuko du (eta borondate horren mailak) zer-nolako herrialdea izan nahi dugun.

Era berean, Podemos-Ahal Duguk kategoria honetako proiektuek helburu hauek lortzea nahi du, zeharka:

1. Herritarren parte-hartzea sustatu.
2. Balioetan oinarritutako hezkuntza bultzatu.
3. Proiektuak zuzenean eragiten dien pertsonen bizi-baldintzak hobetu.
4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu.
5. Lekuan lekukoa eta jasangarria den ekonomia-eredua sustatu.

Proiektuak zuzenduta dauden pertsonen profilak zehaztu beharko dira (adina, sexua, egoera sozioekonomikoa, beharrak...); profil horiek proiektu bakoitzaren helburuen arabekoak izango dira, beraz, askotarikoak izango direla aurreikus daiteke.

## III) Kategoria honentzako ekarpen ekonomikoa

Estatu mailan lau proiektu bultzatuko dira eta bakoitzak 30.000 eurorainoko diru-laguntza jasoko du.

## IV) Kategoria honetan parte hartzeko baldintzak

Baldintza hauek betetzen dituzten elkarteek izango dute kategoria honetan parte hartzeko aukera:

1. Gizartearen interesekoak diren helburuak dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarte moduan osatuta egotea legez (elkarteak, fundazioak, gizarte-ekimenerako kooperatibak).
2. Dagokien erregistroan izena emanda egotea.
3. Espainian helbideratua egotea eta bertan gauzatuko den proiektua aurkeztea.
4. Betebehar fiskalak eta laboralak egunean edukitzea.
5. Proiektua gauzatzeko beharrezko gaitasun teknikoa eta gizatiarra erakustea: proiektuaren elkarte eta pertsona bultzatzaileek beharrezko egitura eta gaitasuna izatea hautatutako proiektua modu bideragarrian kudeatzeko.
6. Gutxienez, duela urtebete sortua izatea.
7. Alderdi politikoekin zerikusirik ez duen erakundea izatea.
8. Informazioa eguneratuta duen web-orri, blog edo antzerako zerbait izatea.
9. Ezin izango dira IMPULSA programaren hirugarren edizioaren kategoria honetara aurkeztu aurreko edizioaren batean garaile izan ziren erakundeak, bigarren edizioko Podemos-Ahal Dugu IMPULSA kategoriako erakunde irabazleak izan ezik.

## V) Eskaera aurkezteko baldintza formalak

Eskaeraren aurkezpena soilik online egingo da. Eskatzaileek <http://participa.podemos.info/impulsa> plataforman urriaren 24tik aurrera egongo den formularioa bete beharko dute eta honako agiri hauek gehitu beharko dituzte:

1. Proiektuaren aurkezpen-bideoa edo -irudia eta deskribapen labur bat 600 karaktere edo gutxiagokoa (espazioak barne), hautapen-prozesuan gainerako dokumentazioarekin batera erakutsiko dena.
2. Erakundearen logoa.
3. Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Txartela.
4. Erakunde eskatzailearen inskripzioa dagokion erregistroan.
5. Erakunde eskatzailearen estatutuen kopia, behar bezala erregistratuak (erregistroak zigilatuak).
6. Erakundearen legezko ordezkarien NAN edo AIZ.
7. Zerga Agentziaren ziurtagiri bat, betebehar fiskalak eguneratuta dauzkala erakusten duena, indarrean egon dadila proiektua aurkezten denean (igorri ondoren sei edo hamabi hilabete).
8. Gizarte Segurantzaren ziurtagiri bat, betebehar laboralak eguneratuta dauzkala erakusten duena, indarrean egon dadila proiektua aurkezten denean (igorri ondoren sei edo hamabi hilabete). Erakundea ez badago Gizarte Segurantzaren izena emanda, «Gizarte Segurantzaren sistemaren barruan enpresari bezala izena eman gabe egotearen txostena» gehitu beharko da.
9. Erakundearen azken jardueraren ekintzen memoria.
10. Erakundearen azken jardueraren memoria ekonomikoa.

## VI) Aurkezteko epea

Proiektuak eta dokumentazioa aurkezteko epea 2016ko urriaren 24ko 10:00etan hasiko da (penintsulako ordua) eta 2016ko azaroaren 6ko 23:59etan amaituko da (penintsulako ordua).

## VII) Proiektuak balioesteko irizpideak

Automatikoki baliogabetzeko arrazoiak izango dira honako hauek: aurkeztutako proiektuak edo erakunde eskatzaileak eskatutako baldintzak ez betetzea; giza eskubideak ez errespetatzea; edo Podemos-Ahal Duguren Kode Etikoa urratzea.

2016ko azaroaren 14an iragarriko dira baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuak eta, beraz, ebaluazio-fasera igaroko dira.

**Ebaluazio-fasean** zehar IMPULSAko Talde Teknikoak edizio honetako oinarrien eta honako irizpide hauen arabera balioetsiko du proiektu bakoitza (bi bloke handitan banatzen dira irizpideak):

- a) Erakunde eskatzailearekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 40 puntu).
- b) Aurkeztutako proiektuarekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 60 puntu).

**Eranskinean («IMPULSA zure herrialdea proiektuen ebaluazio-irizpideak»)** kontsulta daitezke bloke bakoitzeko irizpide zehatzak.

## VIII) Ordaingarriak diren gastuak

IMPULSAk proiektua gauzatzeko egiten diren ekimenen gastuak soilik ordainduko ditu.

Ez ditu IMPULSAk ordainduko:

1. Erakunde batentzat diru-laguntza soilik diren proposamenak, ez ohiko mantenu eta funtzionamendu gastuak (erakunde eskatzailearen ohiko egoitzaren alokairua, ura, telefonoa, argindarra, etab.) ez aparteko gastuak (obrak, erakunde eskatzailearen egoitzarako ekipamendua, etab.).
2. Langileak edo langile autonomoak kontratatzea soilik helburu duten proposamenak.
3. Proiektuaren talde arduradunaren dietak, egonaldiak edo bidaiak justifikatzeko gastuak, proiektuarekin loturarik ez dutenak.
4. Edozein finantza-eragiketaren zorren edo amortizazioaren ordainketa.
5. Ez da onartuko zerbitzuak azpikontratatea.

Gastuen aurrekontuari dagokionez, nahitaez bi baliabide hauetarako erabili beharko dira gastuak: giza baliabideak eta materialak. Gainera, langileei ordaintzeko gastuek (soldatapekoak edo zerbitzu jakin baterako kontratatutakoak) ezingo dute eskatutako laguntzaren %60 gainditu.

## IX) Proiektuak gauzatzeko epea

Jasotako diru-laguntza proiektua gauzatu bitartean inbertitu behar da, eta horrek hamabi hilabeteko iraupena izango du gutxi gorabehera<sup>3</sup>. Proiektua lehen ordainketa jaso eta hilabetera hasi beharko da, gehienez ere.

---

3. Kasu berezietan, eta proiektua gauzatzeko aldiaren luzatze-protokoloaren arabera, proiektuaren iraupena luzatzeko aukera egongo da.

No podrán imputarse gastos anteriores a la fecha de publicación de los resultados de la Ezingo dira gehitu deialdiaren emaitzak argitaratu aurretik egindako gastuak, ezta hitzarmena amaitu ondorengoak ere.

## X) Proiektu irabazleak hautatzeko sistema

### Lehen fasea. Ebaluazioa (2016ko azaroaren 15etik abenduaren 11ra)

IMPULSAko Talde Teknikoa arduratuko da baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuak ebaluatzeaz eta, agiri honetako oinarrietan ezarritako irizpideen arabera, *ranking* bat egingo da proiektu bakoitzaren puntuazioarekin.

Bozketa fasera igaroko dira **gutxienez 60/100 puntu** lortzen dituzten proiektuak, puntu horietatik gutxienez 20 «Erakunde eskatzailearekin zerikusia duten irizpideak» blokekoak izan beharko dira eta 30 «Aurkeztutako proiektuarekin zerikusia duten irizpideak» blokekoak

Ebaluazioaren emaitzak eta *rankinga* 2016ko azaroaren 28an argitaratuko dira <https://impulsa.podemos.info/>.

### Bigarren fasea. Bozketak (2016ko abenduaren 15etik 18ra)

Bozketa-prozesu bat zabalduko da Podemos-Ahal Dugun izena emanda daudenek bi kategorietako bi proiektu irabazleak hautatu ditzaten.

### Hirugarren fasea. Emaitzak (2016ko abenduaren 19tik aurrera)

Bozketen emaitzak <http://impulsa.podemos.info/> web-orrian kontsultatzeko aukera egongo da 2016ko abenduaren 19tik aurrera. Erakunde eskatzaile irabazleekin harremanetan jartzeko, telefonoa edo helbide elektronikoa erabiliko da.

Deialdiaren prozesuan zehar helbide elektronikoa sarri begiratzea aholkatzen da.

Deialdiaren ebazpenari ezingo zaio apelaziorik jarri.

## XI) Emandako laguntzaren formalizazioa

1. Laguntzen ebazpenaren berri emandakoan, Podemos-Ahal Dugu alderdi politikoak eta proiektu irabazleak aurkeztu dituzten lau erakundeek elkarlanerako hitzarmen bat sinatuko dute agiri honetako oinarriak eta egungo legeria oinarri hartuta.

2. Dokumentu horretan zehaztuko dira bi aldeen betebeharrak eta eskubideak, eta atal hauek izango ditu:

- 2.1. Proiektua hasteko eta amaitzeko epeak.
- 2.2. Emandako laguntzaren zenbatekoa.
- 2.3. Fakturen denbora-tartearen zehaztapena.
- 2.4. Ordaintzeko modua.
- 2.5. Proiektuaren jarraipena.

3. «IMPULSA zure herrialdea» kategoriako lau proiektu irabazleek dagokien laguntzaren %50 jasoko dute bozketen emaitzak argitaratu eta erakundearen legezko ordezkariak sinatutako elkarlanerako hitzarmena eta legezko dokumentazioa IMPULSAko Talde Teknikoari bidali eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean. Gainerakoa bi epetan ordainduko da: lehenbizi, proiektuaren Erdiko faseko txostena IMPULSAko Talde Teknikoak jaso eta ebaluatutakoan eta lehen ordainketarekin egindako gastuak justifikatutakoan, proiektua gauzatzen ari den seigarren hilabetean zehar kopuru osoaren %40 ordainduko da; eta, gero, gainerako %10 gauzatutako proiektuaren amaierako memoria eta gastuen justifikazioa aurkeztutakoan ordainduko da.

4. IMPULSAko Talde Teknikoak eskatutako eta agiri honetako oinarrietan zehaztutako dokumentazioa bidali ezean, edo memorian aurkeztutako proiektua bete dela frogatu ezean, erakundeak eta proiektuaren arduradunek jasotako diru-laguntza oso-osorik itzuli beharko dute.
5. Erakunde eskatzaileek IMPULSAko Talde Teknikoak onartutako proiektuen jarraipena egingo duela jakin eta onartuko dute, eta konpromisoa hartuko dute proiektuaren garapenari buruz Talde Teknikoak eskatutako informazioa emateko.
6. Autonomia Herritar Kontseiluek eta Parte Hartzearen arduradun autonomikoek eragileen jardura erraztuko dute; eta, Podemos-Ahal Duguko Parte Hartze Sailak bereziki eskatutako kasuetan, aldi behin ebaluatuko duen talde bat osatuko da kasu horien bilakaeraren berri gardentasunez emateko.

## **PODEMOS IMPULSA**

### **I) Helburua**

Herritar Kontseilu Autonomikoek, haien Talde Parlamentario Autonomikoek, edo Batzarkide Taldeek (Euskadin), Estatuko Herritar Kontseiluak, Diputatuen Kongresuko Talde Parlamentarioak, Senatuko Taldeak eta Europako Talde Parlamentarioak kategoria honetako diru-laguntzak emango dizkiete kausa sozialen alde eta irabazi-asmorik gabe jarduten duten erakunde batzuei (elkarteak, fundazioak, gizarte-ekimena duten kooperatibak, plataformak eta herri-mugimenduak), haien lehentasun politiko-estrategikoak kontuan hartuta, egindako lana aitortzeko.

### **II) AEkarpen ekonomikoak**

Kategoria honetan, guztira 150.000 euro erabiliko dira.

Herritar Kontseilu Autonomikoen eta Talde Parlamentario Autonomikoen kasuan, aukeraketa autonomia-erkidegoka egingo da, eta guztira 130.000 euro erabiliko dira. Autonomia-erkidego bakoitzari zenbat diru eman erabakitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan (ikus eranskina):

- Autonomia-erkidegoko biztanleria (azken eroldako datuak, 2015).
- 2016ko ekainaren 26ko hauteskundeetan Elkarrekin Podemosek autonomia-erkidego bakoitzean jasotako boto kopurua. Podemos-Ahal Dugu beste alderdi politiko batzuekin elkartuta aurkeztu zen autonomia-erkidegoen kasuan, guztira lortutako botoak zenbatuko dira.

Talde Parlamentarioak eta Herritar Kontseilu Autonomikoak batzorde batean antolatzea gomendatzen da, diru-laguntzak aproposak iruditzen zaizkien ekimen edo proiektuetara bideratzeko. Sariak ez dira 500 euro baino gutxiagokoak izango.

Estatuko Herritar Kontseiluko, Diputatuen Kongresuko Talde Parlamentarioko eta Senatuko Taldeko kidez osatutako batzorde batek guztira 15.000 euro emango ditu, eta Europako Talde Parlamentarioak 5.000 euro banatuko ditu. Sariak ez dira 500 euro baino gutxiagokoak izango.

### **III) Saritutako erakundeak aurkezteko epea**

Proiektuak eta dokumentazioa aurkezteko epea 2016ko urriaren 24an 10:00etan (penintsulako ordua) irekiko da, eta amaitu, berriz, 2017ko ekainaren 30eko 23:59etan (penintsulako ordua).

### **IV) Saria jasotzeko egin beharrekoak**

Saria nork irabazi duen adierazi ostean, eta jakinarazpenetik baliodun hogeita hamar egunen barruan, erakunde irabazleak mezu elektronikoko bat bidali beharko du [proyectoimpulsa3@podemos.info](mailto:proyectoimpulsa3@podemos.info) helbidera. Mezu horretan, datu hauek adierazi beharko dira:

1. Saritutako erakundeko legezko ordezkariaren izen-abizenak.
2. Saritutako erakundearen legezko ordezkariaren NAN edo AIZ.
3. Erakundea erregistroan izena emanda dagoela adierazten duen ebazpena.
4. Identifikazio Fiskalaren Txartela.
5. Irabazi-asmorik gabeko erakundeari dagokion bezeroaren kontu-kodearen zenbakia (BKK), eta haren titulartasuna egiaztatzen duen bankuko agiria.
6. Saria jasotzeak dakartzan betebeharrak legal eta fiskal guztiak beteko direla adierazten duen konpromisoa, sinatuta.
7. IMPULSAko Talde Teknikoak eskatutako beste edozein dokumentu.

Aurrez aipatutako datuak eta dokumentazioa jaso ostean, emandako bankuko kontuan sartuko da sariaren diru kopurua.

Horrez gain, saritutako erakundeak agiri bat jaulki beharko du Podemos-Ahal Dugu alderdi politikoaren eskutik jasotako laguntzari buruz, IMPULSAko Talde Teknikoak eskatutakoan.

## V) Baldintza etiko eta legalak

1. Podemos-Ahal Duguko Berme Demokratikoen Komisioak eta IMPULSAko Talde Teknikoak egiaztatuko dute saritutako erakundeak bete egiten dituela Podemos-Ahal Duguren Kode Etikoa eta ondoko baldintza hauek.
2. Saritutako erakundeak irabazi-asmorik gabekoa eta legezkoa izan behar du.
3. Kategoria estatalean, lehenengo edizioan edo bigarrengoan saria irabazi duten erakundeei ez zaie saririk emango kategoria horretan.
4. Erakunde batek ez du diru-laguntza bat baino gehiago jasoko kategoria berean.
5. *Hacemos* programako edo IMPULSA zure herrialdea kategoriako diru-laguntzaren bat jaso duten erakundeek ez dute kategoria honetako saririk jasoko.
6. Instituzioetako ordezkari politikoak eta Herritar Kontseiluko kideak elkarre, fundazio, kolektibo, plataforma edo herri-mugimendu bateko ordezkariak badira edo zuzendaritza batzordean edo koordinazio-organoan badaude, ezin izango dute sarira aurkeztu.

# DEIALDIKO BALDINTZA OROKORRAK

## 1. EGUTEGIA

---

### Iraila

- 29 **IMPULSAren oinarrien aurkezpena**
  - 30<sup>etik aurrera</sup> Hacemos kanpaina
- 

### Urria

- 23<sup>ra arte</sup> Hacemos kanpaina
  - 24 **Proiektuak aurkezteko epearen hasiera**
- 

### Azaroa

- 6 **Proiektuak aurkezteko epearen amaiera**
  - 9 Zuzendu behar diren proiektuen eskaera
  - 10 - 11 Proiektuak zuzentzeko epea
  - 14 **Onartu diren eta ebaluatuko diren proiektuen argitalpena**
  - 15<sup>etik aurrera</sup> Proiektuak ebaluatzeko aldia
- 

### Abendua

- 11<sup>ra arte</sup> Proiektuak ebaluatzeko aldia
  - 12 **IMPULSA tu país (sustatu zure herrialdea) kategorian bozkatzeko fasera igarotzen diren proiektuen argitalpena; eta Hacemos proiektuak ebaluatzeko behin-behineko zerrendaren argitalpena.**
  - 13 - 14 Hacemos proiektuen erreklamazioak aurkezteko aldia
  - 15 - 18 **IMPULSA tu país proiektuen online bozketa**
  - 19<sup>tik aurrera</sup> **Hacemos eta IMPULSA tu país programen behin betiko irabazleen argitalpena.**
- 

## 2. TALENTU BANKUA

Diru-laguntzaz gain, proiektu irabazleek Podemos-Ahal Duguko Talentu Bankua erabiltzeko aukera izango dute, eta horren bitartez, beren proiektuak garatzen lagunduko dieten profilarik izango dituzte eskura. IMPULSAko Talde Teknikoa irabazleen eta profilen arteko harremana antolatzeaz eta ikuskatzeaz arduratuko da; bai eta Podemos-Ahal Duguren Kode Etikoko mugak gainditzen dituen edozein portaera saihestez ere. Bilaketa guztiak Datuak Babesteko Lege Organikoa betez egingo dira. Podemos-Ahal Duguko Parte Hartze Saila eskaintzaileen eta eskatzaileen arteko bitartekaria izango da, derrigorrez.



### 3. HEDAPENA

Hirugarren edizio honetako proiektu guztiek, kategoria bakoitzean aipatutako baldintzez gain, IMPULSAko logotipoa eta «IMPULSAk finantzatu» jarri beharko dute beren lokaletan, materialetan, argitalpenetan, eta abarretan, Podemos IMPULSA kategorian saritutako elkarteek izan ezik.

Proiektuak ikusarazteko, haien garapenez informatzeko, eta ekimenak elkarbanatzeko eta haien inguruan hitz egiteko, eremu bat ezarriko da, parte-hartzaileek eztabaidak sor ditzaten eta iradokizunak jaso ditzaten. Gainera, eremu horretan gunek jakin bat egongo da, parte-hartzaileek aukera izan dezaten proiektuko aurrerapenak adierazteko. IMPULSAko Talde Teknikoak, proiektuak ebaluatzeko orduan, kontuan izango du eremu horri zer erabilera ematen zaion.

Halaber, Zirkuluak, Herritar Kontseiluak eta Parte Hartzearen arduradunak deialdia zabaltzeaz eta hedatzeaz arduratuko dira, parte hartu nahiko luketen tokian tokiko eragileak jakinaren gainean egon daitezten.

### 4. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

**4.1.** Deialdi hau Podemos-Ahal Dugu alderdi politikoak, IFZ G86976941 eta egoitza soziala Zurita kalea 21, 28012, Madrilen dituenak, luzatu du. Deialdia finantzatzen duten funtsak alderdiko kargu publikoek alderdiko bankuko kontuan sartutako dirutik datoz.

**4.2.** Podemos-Ahal Duguk eskubidea du proiektu baten bozketa publikoa ez egiteko, edo jada onartuta dagoen proiektu baten diru-laguntza (guztiz edo partzialki) bertan behera uzteko, baldin eta kasu hauetakoren bat gertatzen bada:

- 4.2.1.** Proiektua proposatutako aurkezpen-formatura ez egokitzea..
- 4.2.2.** Eskatzaileak (edo haren kontraparteak) Podemos-Ahal Duguren Kode Etikoa hausten duten elementuak izatea estatutuetan edo beste edozein material publikotan.
- 4.2.3.** Aurkeztutako proiektua Podemos-Ahal Duguren bide politiko-estrategikoaren aurka joatea.
- 4.2.4.** Que los presenten entidades con ánimo de lucro o transfieran a entidades con ánimo de lucro un porcentaje de los costes del proyecto que el Equipo Técnico de IMPULSA juzgue como inadecuado de acuerdo con los fines del proyecto.
- 4.2.5.** Eskatzaileak proiektu motaren arabera ezarritako baldintza espezifikoak ez betetzea, dokumentazio gehigarria ez aurkeztea, edo akatsak ez zuzentzea, proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa edota juridikoa bermatzeko IMPULSAko Talde Teknikoak ezarritako epeetan, baldintza hauen 4. puntuan adierazten den bezala.
- 4.2.6.** IMPULSAko Talde Teknikoak laguntzak bideratzeko eta proiektuak hasteko eskatutako dokumentuak, agiriak, hitzarmenak eta konpromisoak ez izenpetzea.

**4.3.** Eskatzaileek zin egiten dute proiektuaren ebaluazio bat entregatuko dutela ezarritako epearen barruan. Proiektua hasi aurretik, konpromiso erabakigarri bat sinatuko dute, adostuz, proiektua ez bada garatzen, jasotako diru guztia edo IMPULSAko Talde Teknikoak erabakitako kopurua itzuli egingo dutela.

**4.4.** *Hacemos* eta IMPULSA zure herrialdea programetako proiektuen kasuan, konpromiso erabakigarri bat sinatuko da, adostuz, Talde Teknikoak eskubidea duela oraindik eman gabeko diru-laguntzak bertan behera uzteko, edo jada emandakoak itzularazteko, baldin eta ebaluazioak ez badira entregatzen ezarritako epean eta moduan..

**4.5.** Zer proiektuk irabazi duten erabaki ostean, IMPULSAko Talde Teknikoak aukera izango du proiektu bakoitzari baldintza espezifikoak ezartzeko, dokumentazio gehigarria eskatzeko, edota zuzenketak egiteko esateko, proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko helburuarekin.

**4.6.** IMPULSA zure herrialdea kategorian hautatutako proiekturen bat baliogabetzen bada, deuseztatu egingo da, eta proiektu horretara bideratutako dirua IMPULSAren hurrengo edizioetan erabiliko da.

**4.7.** Proiektuak IMPULSAko Talde Teknikoak baliozkotuko ditu, ezarritako gutxieneko baldintzen arabera. Talde horrek Podemos-Ahal Duguko Berme Demokratikoen Komisioko kide bat egoteko eska dezake, proiektuak oinarrietara eta baldintza etikoetara egokitzen direla bermatzeko.

**4.8.** Deialdi honetan parte hartzean, baldintza orokor hauetan adierazitako betebeharrak guztiak onartzen dira, bai eta onartutako proiektu bakoitzari gehitutako baldintza espezifikoak ere. Baldintza horietakoren bat betetzen ez bada, laguntza baliogabetuko da, eta dirua itzularaziko.

**4.9.** Podemos-Ahal Duguko Parte Hartze Sailak eskubidea du edozein unetan oinarri hauek moldatzeko eta diru-laguntzak aldatzeko (haiek ordezkaturata edo baliogabetuta). Hori horrela, aldaketa horiek aditzera emateko, jatorrizko deialdiko baliabide berberak erabiliko ditu.

**4.10.** Eskatzaileak onartu egingo du Podemos-Ahal Duguk ez duela erantzukizunik hartuko parte-hartzailearen batek egile- edo marka-eskubideak urratzen baditu, edota proiektua egitean, erantzukizun zibilak hausten baditu. Jardueraren arabera, kontratuko baldintza espezifikoetan, jarduera horri dagokion erantzukizun zibileko aseguruia eskatu ahal izango da.

**4.11.** Kontratu horretako betebeharrak larriki hausten badira, Podemos-Ahal Duguko Kode Etikoa urratzen bada, partaideek Talentu Bankuko xedeez eta oinarriez abusatzen badute, proiektuko bideei edo helburuei lotutako auzi zibil bat edo legez kontrako ustezko jardueraren bat balego, edota proiektua aukeratzeraz eta bultzatzeraz eraman zuten helburuak edota bideak aldatzen badira, Podemos-Ahal Duguko Parte Hartze Sailak nahi adina txosten eska ditzake proiektuaren garapenera buruz, eta hauste larria egonez gero, eskubidea izango du, alde bakarreko erabakia izanik, proiektuaren garapena eteteko, eta dirua itzultzea eskatzeko, baldintza etikoetan konpromiso erabakigarri gisa ezarri bezala; Podemos-Ahal Duguk egin ditzakeen jarduera juridikozionalen inguruko aurreiritzirik izan gabe, eta haren prozesu-legitimazioa onartuta.

**4.12.** Proiektuko titularra eta jasotzailea beti arduratuko da proiektuaren garapenetik eta jasotako diru-laguntzatik eratorritako betebeharrak laboral, fiskal eta finantzario guztiez.

**4.13.** Podemos-Ahal Duguk eskubidea du edozein unetan deialdia bertan behera uzteko edo diru-laguntzak eteteko, baldin eta, edozein arrazoiengatik, proiektua bideragarria izango ez balitz alde teknikoetik, ekonomikoetik edo legetatik.

**4.14.** Oinarri hauek biltzen dituen testua, eta hortik eratorritako dokumentuak, Espainiako hizkuntza ofizial guztietan idatziko dira. Idatzia interpretatzean arazorik izanez gero, erreparatu gaztelaniaz argitaratuta dagoen testuari.

## **5. DATU PERTSONALEN BABESA**

**5.1.** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa jarraiki, parte-hartzaileei jakinarazten zaie erregistro-inprimakian adierazitako datu pertsonalak Podemos-Ahal Dugu alderdi politikoaren, IFK G86976941 duenaren, «Impulsa» fitxategian txertatuko direla, eta datu horiek proiektuaren hautaketa-prozesurako eta garapenerako erabiliko dituela.


**5.2.** Parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkie hirugarren pertsonari emango, ez eta erakunde publikoei ere, haien baimenik izan gabe; legeak datu horiek autoritateei ematera behartzen duen kasuetan izan ezik..

**5.3.** Parte-hartzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak erabiltzeko, eta adierazitako helburuekin lotutako mezua eta jakinarazpen elektronikoak jasotzeko.

**5.4.** Parte-hartzaileak adierazten du eta bermatzen du erregistro-inprimakian adierazitako datu pertsonalak zuzenak, zehatzak, erabatekoak eta eguneratuak direla, datu pertsonalen babesari buruzko lege-abisu hau irakurri duela, eta haren edukiarekin ados dagoela.

**5.5.** Podemos-Ahal Duguk bete egiten ditu datu pertsonalen babesa bermatzeko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak eskatutako segurtasun-neurri guztiak (errege-dekretu horrek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, onartzen du).

**5.6.** Sarbide-, zuzentze-, baliogabetze- eta aurkaritza-eskubideak erabiltzeko, parte-hartzaileek posta elektronikoko bat bidal dezakete [lopd@podemos.info](mailto:lopd@podemos.info) helbidera, beren NANaren kopia bat edo legezko identifikazio-dokumentu bat atxikita.



## ERANSKINA

### HACEMOS PROGRAMAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

#### 1) Zirkuluarekin, Udalerriko Herritar Kontseiluarekin edo eskaera egin duen elkartearekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 30 puntu)

1. Zirkuluak, Udalerriko Herritar Kontseiluak edo eskaera egin duen elkarteak erakutsi du elkarlanerako loturak dituela inguruko beste taldeekin eta baliabideekin (10 puntu).
2. Zirkuluak, Udalerriko Herritar Kontseiluak edo eskaera egin duen elkarteak egin izan ditu, aldez aurretik, aurkeztutako proiektuarekin zerikusia duten jarduerak (10 puntu).
3. Zirkuluak, Udalerriko Herritar Kontseiluak edo eskaera egin duen elkarteak erakutsi du badakiela zer behar dituzten proiektuak zuzenean eragingo dieten herritarrek (10 puntu).

#### 2) Aurkeztutako proiektuarekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 70 puntu)

##### Azpiirizpideak:

##### 1. Garrantzia (10 puntu)

- a. Proiektuari esker garatutako ekimenek herritarren bizimodua eta ingurunea hobetzen lagunduko dute, eta era berean, banakako eta taldekako partaidetza bultzatuko dute (6 puntu).
- b. Proiektuak ez du asistentzia-izaerarik; haren helburu nagusia da, proiektua garatzean, onuradunek parte-hartze eta inplikazio zuzena izatea (4 puntu).

##### 2. Bideragarritasun teknikoa (25 puntu)

- a. Proiektua ongi idatzita dago, eta ideiak koherentziaz azalduta daude (5 puntu).

- b. Proiektua justifikatzean, beharrak objektiboki identifikatu dira lurraldearen mapatzearen bidez, eta egitasmoaren ondorioz egingo diren jarduerak aintzat hartzen dituzte proiektuak eragingo dien herritar guztiak (10 puntu).
- c. Koherentzia eta lotura garbiak daude proiektuko helburuen, emaitzen eta garapen faseen artean (10 puntu).

**3. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa (10 puntu)**

- a. Aurrekontua nahiko zehaztuta dago, eta balioets daiteke ea jarduera bakoitzaren beharretara egokitzen den, helburuekin koherentea den eta aurreikusitako jarduerekin bat datorren (10 puntu).

**4. Proiektuaren iraunkortasuna (10 puntu)**

- a. Proiektuaren diseinuak ahalbidetu egiten du emaitzek epe ertainean nahiz luzean irautea, IMPULSAREN laguntza edozein delarik ere (10 puntu).

**5. Harremanak ingurunearekin (15 puntu)**

- a. Proiektuak Podemosen parte ez diren (udalerriko, auzoko edo barrutiko) herritarren multzo zabala hartzen du (5 puntu).
- b. Ez dago proiektuan aurreikusitako jarduerarik lurralde horretan; eta egonez gero, eskaria oso handia da eta jada badauden jarduerak ez dute eskari hori asetzen (5 puntu).
- c. Proiektuak aurreikusten du inguruko beste erakunde edo talde batzuekin elkarlanean arituko dela (5 puntu).

## **IMPULSA ZURE HERRIALDEA PROIEKTUEN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

### **1) Erakunde eskatzailearekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 40 puntu)**

#### **Azpiirizpideak:**

#### **1. Kudeaketa teknikorako gaitasuna (20 puntu)**

- a. Erakunde eskatzailea gai da proiektua alderdi hauen arabera garatzeko:
  - i. Esperientzia (5 puntu).
  - ii. Kudeatzeko gaitasuna (5 puntu).
  - iii. Baliabideak (5 puntu).
- b. Koherentzia erakundearen xedearen eta proiektuaren helburuen artean (5 puntu).

#### **2. Harremanak ingurunearekin (10 puntu)**

- a. Erakunde eskatzaileak frogatu du proiektua garatuko den inguruneko eragileekin elkarlanean arituko dela (Administrazioa, beste erakundeak, taldeak eta abar) (4 puntu).
- b. Erakunde eskatzaileak lotura du lan-sareekin (2 puntu).
- c. Erakunde eskatzailea adierazgarria da sektorean, eta oinarri sozial sendoa du (4 puntu).

#### **3. Kudeaketa ekonomikorako gaitasuna (10 puntu)**

- a. Azken urteko kontu ekonomikoetan ikus daiteke erakundea iraunkorra dela (5 puntu).
- b. Eskatutako diru-laguntzaren % 80 baino gehiago dago proiektura bideratuta (5 puntu).

### **2) Aurkeztutako proiektuarekin zerikusia duten irizpideak (gehienez: 60 puntu)**

#### **1. Garrantzia eta bideragarritasun teknikoa (25 puntu)**

- a. Proiektua ongi idatzita dago, ideiak koherentziaz azalduta daude, eta emandako eruedetara eta txantiloietara egokitzen da (2 puntu).
- b. Proiektua justifikatzean, beharrak objektiboki identifikatu dira. Proposatutako garapenaren artea aztertu da. Proiektuak izaera berritzailea du, ikuspegiaren eta garapenaren aldetik (3 puntu).
- c. Koherentzia eta lotura garbiak daude proiektuko helburuen, emaitzen eta garapen faseen artean. Helburu espezifikoak argi eta garbi daude azalduta, benetan lorgarriak dira, eta identifikatutako beharrak asetzen dituzte (8 puntu).
- d. Kronograman, jarduera guztiak logikaz eta modu egokian banatu dira (2 puntu).
- e. Garatu beharreko jarduerak aintzat hartzen dute xede-biztanleria (3 puntu).
- f. Proiektuaren autoebaluazio-sistema zehaztasunez eta koherentziaz diseinatu da, aintzat hartu dira eraginkortasunaren, efizientziaren, egokitasunaren eta, bereziki, inpaktuaren eta bideragarritasunaren oinarritzko irizpideak, eta metodo partizipatiboen erabilera ere kontuan hartu da. Programa espezifiko bat txertatu da, proiektua aurkezteko eta emaitzak zabaltzeko (7 puntu).

## **2. Bideragarritasun ekonomiko-finantzaria (10 puntu)**

- a. Aurrekontua nahiko zehaztuta dago, eta balioets daiteke ea jarduera bakoitzaren beharretara egokitzen den, helburuekin koherentea den eta aurreikusitako jarduerekin bat datorren (10 puntu).

## **3. Proiektuaren iraunkortasuna (10 puntu)**

- a. Proiektuaren diseinuak ahalbidetu egiten du emaitzek epe ertainean nahiz luzean irautea, IMPULSAren laguntza edozein delarik ere (5 puntu).
- b. Ez dago proiektuan aurreikusitako jarduerarik lurralde horretan; eta egonez gero, eskaria oso handia da eta jada badauden jarduerak ez dute eskari hori asetzen (3 puntu).
- c. Proiektuak aurreikusten du beste erakunde edo talde batzuen laguntza finantzaria edo ez-finantzaria jasoko duela (2 puntu).

## **4. Zeharkako alderdien balioespena (15 puntu)**

- a. Proiektuaren garapenak elkarrekin sendotzen du (2 puntu).
- b. Proiektua garatuko den herriko edo barrutiko herritarren parte-hartzea bultzatzen du (3 puntu).
- c. Proiektuak balioen hezkuntza sustatzen du (2 puntu).
- d. Proiektuaren bitartez, hark eragiten dien herritarren bizimodua eta ingurunea hobetzen dira, eta banakako eta taldekako partaidetza bultzatzen da (4 puntu).
- e. Proiektuak genero-ikuspegia lantzen du (2 puntu).
- f. Proiektuak kontuan hartzen du ingurumenaren iraunkortasuna (2 puntu).

## BANAKETAREN TAULA AUTONOMIA ERKIDEGOKA

### Hacemos Programa kategoriako funtsen banaketa

	Biztanleria*	Hautesle-errola**	%Podemos-Ahal Duguk jasotako botoak***	Batez besteko zenbatekoa/Biztanleria + ratioa % Podemos-Ahal Dugu botoak	Behin betiko zenbatekoa AE-ka
Guztira	46.624.382				
Andaluzia, Ceuta eta Melilla	8.568.890	6.627.994	18,56%	23.679,15	24.000,00
Aragoi	1.317.847	1.016.954	19,68%	8.446,97	9.000,00
Asturias	1.051.229	982.827	23,78%	9.046,05	9.000,00
Balearrak	1.104.479	772.925	25,38%	9.617,21	9.000,00
Kanariak	2.100.306	1.676.285	20,24%	10.285,12	12.000,00
Kantabria	585.179	498.195	17,69%	6.307,21	6.000,00
Gaztela - Mantxa	2.472.052	2.136.012	15,50%	9.728,73	9.000,00
Gaztela eta Leon	2.059.191	1.568.986	14,64%	8.597,62	9.000,00
Katalunia	7.508.106	5.519.852	24,51%	23.103,25	24.000,00
Valentiako Erkidegoa	4.980.689	3.615.751	25,37%	17.928,05	18.000,00
Extremadura	1.092.997	907.181	13,04%	6.068,38	6.000,00
Galizia	2.732.347	2.701.697	22,18%	12.194,77	12.000,00
Madrilgo Erkidegoa	6.436.996	4.925.835	21,23%	19.869,19	18.000,00
Murtziako Eskualdea	1.467.288	1.034.064	14,39%	7.256,71	6.000,00
Nafarroako Foru Erkidegoa	640.476	502.516	28,33%	9.464,51	9.000,00
Euskal Herria	2.189.257	1.783.357	29,05%	12.991,96	12.000,00
Errioxa	317.053	247.669	16,58%	5.415,13	6.000,00
Kopuruak guztira	46.624.382	36.518.100	350,15%	200.000,00	198.000,00

### Podemos Impulsa kategoriako funtsen banaketa

	Biztanleria*	Hautesle-errola**	%Podemos-Ahal Duguk jasotako botoak***	Batez besteko zenbatekoa/Biztanleria + ratioa % Podemos-Ahal Dugu botoak	Behin betiko zenbatekoa AE-ka
Guztira	46.624.382				
Andaluzia, Ceuta eta Melilla	8.568.890	6.627.994	18,56%	15.391,44	15.500,00
Aragoi	1.317.847	1.016.954	19,68%	5.490,53	5.500,00
Asturias	1.051.229	982.827	23,78%	5.879,93	6.000,00
Balearrak	1.104.479	772.925	25,38%	6.251,19	6.500,00
Kanariak	2.100.306	1.676.285	20,24%	6.685,33	6.500,00
Kantabria	585.179	498.195	17,69%	4.099,69	4.000,00
Gaztela - Mantxa	2.472.052	2.136.012	15,50%	6.323,68	6.500,00
Gaztela eta Leon	2.059.191	1.568.986	14,64%	5.588,45	5.500,00
Katalunia	7.508.106	5.519.852	24,51%	15.017,11	15.000,00
Valentiako Erkidegoa	4.980.689	3.615.751	25,37%	11.653,23	11.500,00
Extremadura	1.092.997	907.181	13,04%	3.944,45	4.000,00
Galizia	2.732.347	2.701.697	22,18%	7.926,60	8.000,00
Madrilgo Erkidegoa	6.436.996	4.925.835	21,23%	12.914,97	13.000,00
Murtziako Eskualdea	1.467.288	1.034.064	14,39%	4.716,86	4.500,00
Nafarroako Foru Erkidegoa	640.476	502.516	28,33%	6.151,93	6.000,00
Euskal Herria	2.189.257	1.783.357	29,05%	8.444,78	8.500,00
Errioxa	317.053	247.669	16,58%	3.519,83	3.500,00
Kopuruak guztira	46.624.382	36.518.100	350,15%	130.000,00	130.000,00